

KORONABIRUSA ATZOKO DATUAK

GIPUZKOAN

90 positibo berri
1.898 hildako EAEn
10.526 positibo guztira* UCI In EAEn

NAFARROAN

258 positibo berri
570 hildako
17.500 positibo guztira UCI In Nafarroan

*HERNANIN 339 (+7), ASTIGARRAGAN 64 (+3)

Hitzaren inguruko jaialdian bertsoa, dantza, poesia, irudia eta musika ikusiko dira

'Errimak bi oinetan' dantza eta bertso ikuskizunak, etzi, eta 'Nola gorde errautsak kolkoan eztulik egin gabe' poesia, musika eta irudi ikuskizunak, ostiralean, erreleboa hartuko diote Biterin eskainiko den 'Esnatu naiz' kabaretari.

HERNANI HITZ-ANDANA

Biterin hitzaren inguruko jaialdia dago iragarrita bihar hasi eta ostiralean arte hiru emanaldi berezirekin. Istorio ezbedinak, kontatuak, kantatuak, antzeztuak, errezitatuak edota musikaz lagunduta, Hiru saioak Biterin izango dira, 20:00etan. Gaur, Andoni Mutiloa hernaniarrak *Esnatu naiz* kabaretarekin estreinatuko du bere lanaren bertso luzea eta *Hitz-andana* izenarekin deituriko kultur ziklo hau.

Bertsoa eta dantza, etzi

Erreleboa etzi eta ostiralean hartuko dute beste bi ikuskizunek. Ostegunean, *Errimak bi oinetan*, dantza eta bertsoak uztartzen dituen emanaldia ikusi daiteke Biterin. Garai bateko eta gaurko bertso eta doinuez osatutako

emanaldi entretenigarri eta dibertigarria da. Dantza eta bertsoa gurutzatzen diren lekuan hasi zen sormen honen bidaia. Haatik konpainiak sormenezko lurralde berriak esploratzen jarraitzen du eta oraingoan bertso-laritzaren soinua mugimendu garaikide bihurtzen du. Aier Beobide eta Unai Elizasu dira zuzendariak. Aier Beobide bera, Amaier Luluaga, Anne Jauregi, Iñigo Etxeberria, Irati Sorondo, Jon Arsuaga eta Nagore Zabala dira parte-hartzen duten dantzariak. Hauek Sustrai Colina, Xalbador, Aitor Mendiluze, Lazkao Txiki, Uxue Alberdi, Odei Barroso eta bertsolari gehiagoren errimekin egingo dute dantza.

Igelaren bandak jarri die soinua bertsoei, eta Thierry Biscary, Maddalen Arzallus eta beste hainbatek jarri diote ahotsa.



'Errimak bi oinetan' ikuskizunean bost dantzarik hartzen dute parte.

Poesia musika eta irudiarekin nahastuta, ostiralean

Hitz-andanari amaiera emateko ostiralean *Nola gorde errautsak kolkoan eztulik egin gabe* poesia, musika eta irudi ikuskizuna eskainiko da. Bertan, Miren Agur Meabek poema berriak plazaratuko ditu eta egilearen ohiko

gaiak azalduko dira. Soinu banda, ezohiko soinua bila dabilen Amorantek jarriko du eta hori gutxi balitz, Aitor Gametxoren ikus-entzunezko sormenak ilustratuko du giroa.

Eneritz Artetxe teatrogileak ikuskizuna borobiltzeko ardura hartu du. **K**

Astigarraga eta Hernaniko Udal Plenoak eramango dira aurrera gaur arratsaldean

19:00etan hasiko dira eta bederatzi mozio aurkeztuko dira; 4 Hernanin eta 5 Astigarragan.

ASTIGARRAGA HERNANI PLENOAK

Hernani eta Astigarragako udal-letan Osoko Bilkurak daude iragarrita gaurko, arratsaldean, 19:00etan hasita. Biak udaletxe bakoitzeko pleno edo areto nagusietan egingo dira.

Urriaren 17an pobrezia desagertarazteko nazioarteko eguna da eta bai Astigarragan eta bai Hernanin horren inguruko hiru mozio aurkeztuko dira. Astiga-

rragan EH Bildu eta EAJk bana aurkeztuko dituzte.

Beste bi gairen inguruan ere mozioak aurkeztuko dira bi Udaletan. Astigarraga eta Hernaniko EH Bilduk Mundubat elkartearekin bat eginez COVID 19agatik sortutako osasun-krisiari aurre egiteko gobernu-neurrien esparruan, Kolonbiako, Guatemalako, Honduraseko eta el Salvadorreko herrialdeetan eskubideak urratzen direla sa-

latzeko mozioa aurkeztuko dute.

EAJ-PNV-k Astigarragan ez ditu herrialde konkretuak aipatzen bere mozioan eta zenbait herrialdek izan ditzaketen giza eskubideen urraketek eta atzerakada demokratikoak aipatzen ditu bere mozioan.

Bi Udaletan Moriako errefuxiatuen eremuan gertatutako sutearen inguruko adierazpen instituzionala ere egingo da.

Eta mozioen atalari dagokionez, Hernaniko Plenoan, eraso sexistak gaitzesteko mozioa aurkeztuko da.

Astigarragan jorrotako diren beste puntu batzuk ondo-koak izango dira: Astigarraga Lantzen SA sozietate publikoak Udalarekin duen mailegua; Adinekoentzako 'Marisa Garaño' tutoretzapeko apartamentuen zerbitzuari, funtzionamenduari eta barne-araubideari udal-araudia.

Hernanin, 2021eko Ordenantza Fiskalak aldatzeko proposatuko da edota Oinarrizko Lanbide Heziketako heziketa-zikloak emateko eskumena eskuordetzen duen akordioaren indarraldia luzatzea. **K**

Plax! aholkularitza zerbitzua, martxan

ASTIGARRAGA UDALA

Plax! sexu eta bikote aholkularitza zerbitzua aurkeztuko da gaur, 12:00etan, udaletxeke pleno aretoan. Bertan zerbitzuaren inguruko xehetasunak azalduko dira.

Banakakoek izena eman dezakete

URUMEA EUSKARALDIA

Aurten ere Euskaraldian banakakoek parte-hartzea egongo da eta pasa den ostegunean eman zitzaion hasiera izen emateari ahobizi edo belarri-prest izateko. Azaroaren 20tik abenduaren 4ra egingo da aurten ariketa eta <https://euskaraldia.eus> web-orrian erraz eman daiteke izena.

Lan eskaintza, Goxalin lan egiteko

GOIZUETA UDALA

Goxalin lan egiteko begiralea behar dute 2020-2021 ikasturterako. Interesatuak, Curriculum-a bidali behar dute info@dindaia.eus helbidera. Bereziki baloratuko da magisteritza edota hezkuntza arloarekin lotutako ikasketekin harremana daukaten ikasketak izatea.

Argazki lehiaketan izena eman daiteke

HERNANI MENDIRIZ MENDI

Mendiriz Mendik, aurten ere argazki lehiaketa jarri du abian. Aurtengoa 41garren edizioa izango da, eta Hernanin bizi diren argazkilarik ez profesional guztiek har dezakete parte. Gehienez, 6 eta gutxienez 3 argazki aurkeztu behar dira, eta horietatik batek «Hernanikoa izan behar du». Gaia librea da, eta argazkiak Mendiriz Mendiko lokalera eraman behar dira, urriaren 8a baino lehen. Astelehen eta ostegunetan, 20:00etatik 21:00etara.

◆ Euskal Pizza ◆
20,20€
Bi pizza ertain,
etxera eramateko.
943 33 33 73
Larramendi, 3. Hernani

ESPECIALISTAS EN MARISCOS
MARISCOS HERNANI
Javier Juristi
609 674 344
Kale Nagusia, 20 - 20120 Hernani
943 555 156
mariscos hernani

BRINTZA
AHOULKULARITZA - CONSULTORIA
Lan-Aholkularitza
Fiskala
Aseguruak Inbertsioak
Zerbitzu Juridikoak
www.brintza.com
URBIETA KALEA 15, HERNANI
Tel: 943 33 12 67 Fax: 943 33 08 92

Telemar
Antenas
Adi! Zure etxeko telebistan
urriaren 1etik aurrera ez baduzu ETB ikusten,
zure telebista berriro sintonizatu.
629 121 355 943 55 33 99
info@antenastelemar.com

GAUR Egunaren hasieran lanbroa eta lainoa agertuko dira. Gainerako orduetan giroa nahikoa argia izango da, baina zeruan tarteka agertuko diren erdi-mailako laino eta goi-lainoak zerua partez estaliko dute. **Min.10° / Max.20°**

BIHAR Giro eguzkitsua nagusituko da bihar. Zerua nahiko urdin agertuko da orokorrean, baina arratsaldeak aurrera egitearekin batera, eta bereziki gauean, lainoak ugariatu dira. **Min.10° / Max.22°**

DOBERA
EUSKARA
ELKARTEA

LAGUNTZAILEAK

Hernaniko Udala

Astigarragako Udala

Dobera Udala

Goizuetako Udala

Aranoko Udala

TAXIAK: 943 550093 (Hernani) 622 222 343 (Astigarraga) 948 514037-948 514019 (Goizueta) **UDALTAINGOIA:** 943 248900 (Hernani) 943 335230-699 487 587 (Astigarraga) **DYA:** 943 464622
AUTOBUSAK: **Garayar:** 943 556658 **Areizaga:** 943 452708 **Korreo Goizueta-Hernani:** 948 514037 **ANBULATORIOA:** 943 006666 - 900 203050 (Hernani) 943 335644 (Astigarraga) 948 510800 (Goizueta) **Egunez:** **A. Etxebarria** Andre kalea, 48 (Hernani) **943 551793** **Gauz:** **Urrutia** Etxeberri, 1 (Hernani) **943 557738** **Goizueta:** Nagusia 64 **948 514353**

EUSKAL LEGIARTEA

GIJONKO FORU AHDUA

DOBERA BAZKIDEAK / KRONIKALARIAK



Sagarra zanpatu zen eta sagardoa egiteko bota.

Sagar uztaren festa ospatu zen Sagardoetxean, giro ezin hobean

ASTIGARRAGA SAGAR UZTA Sagar muztioaren elaborazio lanak familian egiteaz gain, helduentzako kirrikoketa tailerra eta sagardo sagarren kata ere izan ziren igandean Sagardoetxean Sagar uztaren festan. Aipaturiko jarduera hauen

plazak mugatuak izan ziren, baina eguraldiak lagundu zuen eta egun ederra pasa zuten hurbildutakoak. XX. Sagar Uzta 2020 Astigarragako tabernek eskainiko duten sagarraren eratorriekin egindako pintxo-pote bereziarekin hasi zen pasa den

ostegunean. Aurtengo egitaraua, egoera berrira moldatuta ospatu da segurtasun neurri guztiak bermatuz. Ondorioz, Astigarragako Foru plazan ospatu ohi diren sagar muztioaren elaborazio lanak Sagardoetxean egin ziren.



Topa Sagardoetxearen aurrean egin zuten alkateak, antolatzaileek eta hurbildutakoek.

«Guztiok gozatzeko lekua da Urumea ingurua» dio Podemosek

«Errietarik egingo ez digun instituzioak behar ditugu, elkarlanean lagunduko digutenak behar ditugu» azpimarratzen du alderdia moreak.

HERNANI PODEMOS PRENTSA OHARRA

Hernaniko Podemos Ahal Dugu alderdiak prentsa oharra kale-ratu du Urumea ertzean udaran zehar gertaturiko egoeren aurrean eta Udala Gobernuaren kudeaketaren inguruan. Hasteko Udalarekin kontaktuan jarri zirela dio: «konfinamenduari bizi izan dugun udaberri gogorren ondoren eta jakinda jende asko ezingo zela oporretara atera, bai arrazoi ekonomikoengatik, bai pandemiaren egoerarengatik, uda aurretik udalari galdetu genion aurrekusi zuten hobekuntzaren bat Urumea inguruetan aisialdi-eremu bezala».

«Pentsatuz, alde batetik, hondartzak gainezka egongo zirela, eta bestetik, igerilekuetan jende kopurua mugatuko zela, ibaia aukera ona izan zitekeen jende askoren gozamenerako» gogoratzen du oharrean.

«Ziur badagoela arduratsua izan ez den jendea, baina administrazioek ez dute ezer egin ingurua egokitzeko» Hasieran, udalaren erantzuna izan zen «ez zuela denborik eman Urumea ibaiaren inguru-

ruak egokitzeko. Irailean izan da sorpresa, prentsan eta sare sozialetan irakurri dugunean administrazioek ezer egin ez eta berriz ere herritarrei errua egotzi dietela gure gizalege falta azpimarratuz».

Podemosen ustez «ziur badela gure ingurumenarekin ardurasua izan ez den jende portzentai bat eta noski ibaia zaintzea guztion ardura dela».

Halere, gogorarazi dute, «ibaia zaintzea ere badela eremu urpegarrietan eraikitzen ez uztea, bertako faunari igarotzen uzten ez dion hormigoi-pareta haundidun kanal batean ez bihurtzea, ezta ere industria pabilioiekin ibai ertzak betetzea».

Alderdiaren esanetan, «badi-rudi ingurumenari kalte haundia egiten diola zakur batek uretan sartzean, harri batzuk mugitzea gure Urumearen ertzetan pontentzialki kutsagarriak izan daitezken enpresak edukitzea baino».

Beste kalteei buruz, «adibidez, zarata, masifikazioa, ibilgailu gehiegia eta zaborra bertan uztea, badakigu ondo nazkatzeko modukoak direla, hamarkadak daramatzagu hori



Urumea ibaia.

jasaten txotx denboraldian», gogorazi nahi izan dute.

Ahal Duguren ustez, «behar ditugu errieta egingo ez diguten instituzioak, lagunduko digutenak elkarlanean gure bizitza kalitatea hobetzen».

«Neurri desberdinak aurkitu daitezke»

Hartu daitezkeen neurri batzuk gomendatzen ditu: «informazio-kartelen berritzea, eremuen erabilaren gomendioak, garraio publikoa, aparkalekuak txukuntzea, ur eta airearen kalitatearen informazio eskuragarria edo bizikleta-aparkalekuak jartzea izan daitezke gure natur ingurumenarekiko errespetua sustatzen lagunduko diguten neurrietako batzuk». **K**

Gaur 'Manzanas, pollos y quimeras' dokumentalak Afrikara hurbiltzen gaitu

HERNANI ZINEA

Pasa den asteazkenean hasi zen Amherrek antolatutako Migrazio-nea ekimena, «migrazioaren gaiak dituzten filmak aztertu eta eztabaidatzeko saioetan» oinarriturik. Gaur, 18:30etan Biterin, Plaza Feministaren kolaborazioarekin batera, Inés Parísen dokumentala izango da ikusgai doan, *Manzanas, pollos y quimeras* hain zuzen. Dokumental honetan lanbide ezberdinak dituzten emakume afrikarrek, beraien migrazio-bizipenei buruz hitz egiten dute.

Udal euskaltegian izena eman daiteke

HERNANI EUSKARA

Udal euskaltegiak atzo eman zion hasiera ikasturte berriari, baina matrikula epea bihar arte luzatu da. Izena emateko ordutegia honakoa izango da; goizez 09:30etatik, eguerdiko 13:30etara, eta arratsaldetan berriz, 16:30etatik 19:30etara. Hainbat modu daude izena emateko, bertaratuz egin daiteke, Karobieta auzoa 63 (anbulatorio zaharra). Helbide elektronikora ere idatzi daiteke, euskaltegia@hernani.eus edo 943 33 18 96 telefonora deituta.

Eskelak

Eskelak ilunabarreko 19:30ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskela jartzen duen eskatu bezala errespetatuko dira eta funeraria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.

KOTIAN MUÑOZ VELASCO

Hodeien lagunak.

PANAKUMIAK

Hernanin, 2020ko irailaren 29an

IRAGARKI MERKEAK

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesiologia, reiki, homeopatia, akupuntura,... **Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)**